



LIBURUA

Zentauroak, unikornioak...



TABAKALERA

BERRIZ ZENTA URO

KATIXA AGIRRE

ELKAR, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Katixa Agirre, *Amek ez dute* eleberri arrakastatsu eta gomendagarria kaleratu eta lau urtera, pandemia tarteko, sentsazio gazi-gozoak utzi dizkidan *Berriz zentauro* lanarekin dator.

Izugarri gustatu zait zientzia-fikzioa egin duen hurbilpena. Irati Jimenezek dioen moduan, euskal literaturan fantasia gutxi dago eta ongi etorriak dira horrelako ekarpenak.

Baita errealitate birtuala, areagotua eta hedatua erabilita, errealitatearen eta irudimenaren arteko mugen auzi literarioa ekarri izana ere, pantailen bidezko gure bizitzari buruzko gogoeta egitera bultzatzen gaituelako: zenbateraino baztertzen ditugun azalen materialitatea eta kontaktua.

Era berean, asko gozatu dut Mary Wollstonecraft pertsonaia berreskuratu duelako. Lan honetako pertsonailetako

bat da, eta bere bizitzaren gorabeherak aletuko zaizkigu protagonistaren ispilu gisa.

Sarean lehenago esan dudan bezala, Jeanette Wintersonen *Frankisstein* lana gogorarazi dit, agian inspirazio-iturri izan dena, bertan Mary Shelley eta adimen artifiziala agertzen direlako, pertsonaia trans batekin batera. Eta azken horrekin dator zapore gazia, transaren planteamenduarekin.

Pertsonaia transaren genero identitatea deskribatzeko zentauroaren irudia darabil, eta generoaren inguruko Andrea Long Churen diskurtsoa dakar: "Generoa bestearen desiraren araberrako konstrukzioa da (...) Emetasunak emea ez denaren desioa islatzen eta espresatzen du, hortaz, emea izatea objektua izatean datza. (...) bere baitan daukan emetasunaren ukazioan baino ezin

da eraiki gizontasuna. (...) Denok gara emeak eta denok gorroto dugu".

Horren atzean gauza asko daude. Virginia Woolfek defendatzen zuen androginia (denok dugu alde femeninoa eta alde maskulinoa, eta biei eman behar diegu bidea) adibidez, baina baita Sigmund Freuden zakilarekiko inbidia eta emakume izaki osatugabea den ideia. Edo, genero-rolak, binarismoa eta derri-gorrezko heterosexualitatearen berrespena, 'emakume izatea' ahuleziarekin eta sumisioarekin identifikatzean eta 'gizona izatea' boterearekin eta segurtasunarekin.

Nik aukeran nahiago dut Miquel Misséren diskurtsoa: transgeneritateak generoen mugak gainditu eta botere harremanen logika borrokatzen du, adierazpen eta harreman desberdinei leku eginez. ●